

UKAN estiloa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Gaiak

1. Zer da UKAN?
2. Zer ez da UKAN?
3. UKANen ezaugarriak
 - A. Oinarrizko bertsioa (1. bertsioa)
 - B. Kolore bakarreko bertsioa (2. bertsioa)
 - C. UKANen mutazioak
4. UKAN markaren proportzioak eta neurriak
 - A. Proportzioak
 - B. Neurriak
5. UKAN eta gainerako markak
 - A. Jabearen marka
 - B. Gainerako erakundeen markak
6. UKAN biziduna
 - A. UKAN biziduna erabiltzeko oinarrizko baldintzak
 - B. Non ageri da, bereziki, UKAN biziduna?
 - C. Nola jokatzen du UKAN biziduna agerraldietan?

1

Zer da UKAN?

UKANEN SORRERA

2005 urte amaieran, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskariz, hizkuntzen eta hiztunen arteko elkarbizitza bultzatuko zuen ikur bat sortzeari ekin zitzaion. Helburua ez zen iraungitze-data laburreko publizitate-produktu soil bat kaleratzea; asmoa ez zen, ezta ere, iragarki-marka konbentzional bat asmatzea. Elkarbizitzaren eredu eta motore gisa jokatu zuen ikur bat sortu nahi zen. Ikur atsegin eta eraginkorra; ezeren kontra baino, zerbaiten alde egingo zuena; zehazki esateko, hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzaren inguruko balioak azpimarratu eta haien alde egingo zuena. Hiztunen arteko errespetua eragiteaz gainera, hiztun guztien errespetua eta begirunea irabaziko zituena.

Ikuspegi hori ardatz harturik, ikurrak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren jardueraren eta, beraz, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren publizitate-irudia izan behar zuen, eta, hori lortzeko, ekinbide propioak protagonizatu behar zituen: euskararen inguruan izan diren beste hainbat inizatibei uko egin gabe, desberdina izango zena. Baina, ororen gainera, Gobernuak elkarbizitza linguistikoaz pentsatzen duenaren ikur ireki bezain eraginkor bat izatera iritsi behar zuen. Integratzailea eta ez banatzailea. Positiboa. Atsegina. Dinamikoa. Arbuiozko erreakziorik eragingo ez zuena. Horrekin guztiarekin batera, garbi geratu behar zuen euskararen alde egitea eta euskara kulturalki

garatzen saiatzea unibertsaltasunaren aldeko apustua egitea dela.

Horrela jaio zen UKAN, elkarbizitzaren birusa.

IZENARI BURUZ

Birusaren izenari erreparatzen bazaio, ukan hitzak bi adiera nagusi ditu euskaraz:

Batetik, ukan eta izan aditzak sinonimoak dira. Ukan hitzak nortasuna adierazten du, izaera, eta UKAN birusa nortasuna gordetzearen alde dago. Zehazki, nortasun linguistikoa gordetzearen alde. Egoera elebidunetan hizkuntz hegemonikoaren eraginpean bizi den hizkuntza baita beti identitateari eusteko zailtasun gehien dituen, hizkuntza ahularen alde egiten du UKAN birusak, baina ez hizkuntza hegemonikoaren kontra eginez, hizkuntza hegemonikoaren hiztunen kontzientzia suspertuz eta ahulenenarenganako jarrera positiboa eraginez baizik. UKANek hizkuntzen arteko elkarbizitza eragiten du, ez tirabira. Eta, ororen gainera, bizikidetzaren orekatu eta zuzen baten alde egiten du UKANek. Izan nahi dugulako laguntzen digu UKANek.

Bestetik, ukan hitzak oparia ere esan nahi du, eta zuzentasunean oinarritutako elkarbizitza ere horixe da guztiontzat: opari eder bat, giza talde batek aurrera egiteko izan dezakeen bide-makulurik estimatuena. Eta UKANek opari horixe eskaintzen digu bere

1

Zer da UKAN?

jardunarekin: etorkizun zuzenago bateranzko bultzada. Bizikidetzan aurrera egiten laguntzen digun opari bat da UKAN guretzat.

UKAN BIRUS BAT DA

UKAN birus bat da, bai, baina birus onuragarri bat. Osasuna dakarrena. Herrigintzaren muina zaintzen laguntzen digun txertoa: UKANek elkarbizitzarako gogoia eragiten dio kutsatzen duen herritarrari eta bizikidetzara oparo baten aldeko gogoia txertatzen. Izan ere, UKANek kutsatutakoa elebakartasunetik urruntzen da eta elebitasunera (euskarara, alegia) hurbiltzen: bere burua euskalduntzen saiatzen da eta bere ondorengoak, berriz, euskararen bidean jartzen ditu.

Horrela, UKAN zer den definitzeko eskatuko balitzaigu, erantzuna labur bezain zehatza da: UKAN elkarbizitzaren birusa da.

UKAN, gure artean

Badago mundu bat, euskararena eta euskal kulturarena, hemengoa izan eta hementxe bertan bizi arren, erdal munduak askotan ikusten ez duena. Halaxe gertatzen zaie emakumei ere gizonezkoen neurriara egindako mundu batean; halaxe pobre eta ezinduei aberatsen eta boteretsuen neurriko gizarte batean. Antzekoa gertatzen zaie

hizkuntz ez hegemonikoei ere hizkuntza hegemonikoen neurriara jasotako agertokian.

UKAN birusari esker, ordea, hizkuntza ez hegemonikoei —eta gure kasuan, euskarari— begiratzeko modu hori zuzendu nahi litzateke eta begiradaren estiloa findu, euskara ez dadin ikusezina izan bere herrian.

Kontua da munduko lurralde ugarian elebitasunezko egoera dela eredurik zabalduena. Halaxe gurean ere. Aspaldikoa da, halaber, elebitasunak elkarbizitzari dakarzkion onurei eta zailtasunei buruzko debatea. UKANen bokazioa onurak azpimarratzea da eta, aldi berean, zailtasunak gainditzen laguntzea. Problema ez baita euskaldun izatea bera: euskararen zirkunstantziak dira problema. Eta arriskuan dauden beste giza errealitate orotan bezala, euskarak ere eguneroko jardunean bere zirkunstantziak hobetzea du irtenbide bakarra.



2

Zer ez da UKAN?

- Ekitaldietako alaitzaile edo animatzailea: ez UKANen helburuen sustapenerako antolatutakoetan, ezta UKAN ikur balioduntzaile gisa darabiltenetan.
- Haurrentzako entretenigarria edo jostailua: UKANen irudia haurrentzako ekitaldiren batekin lotzekotan, irudi estatikoa soilik erabiliko da, eta sekula ez irudi nagusi gisa. Irizpide nagusia honako hau da: UKANen mezua, haurren munduan, ildo bakar bateko ekimenekin lotu behar da: euskararen erabilera sustatzeko xedez antolaturikoetan soilik izango du tokirik, berez, UKANek; baina, horietan ere, ekitaldiaren propaganda estatikoan, eta ez ikur nagusi moduan.
- Euskararen munduak euskaldunentzat sorturiko ekimenen propagandista: UKANen irudia lausotuko ez bada, erabat saihestu behar da euskararekin nolabaiteko zerikusirik duten ekimenen irudi unibertsala bihurtzea. Are gehiago euskaraz gauzatzen diren baina euskara bera aztergai edo mintzagai ez dutenetan, ildo horretako ekinbideetan azpimarratu behar dena ez baita, hain zuzen ere, euskararekiko lotura, baizik eta, deus azpimarratu behar izanez gero, euskarak gai jakin horretan lortu duen normaltasuna litzateke deus hori, eta ez litzateke izango, gainera, ez UKANen eremutik azpimarratzekoa, alor zehatz horretako ohiko komunikatzaileen aldetik baizik.
- Hizlari edo esataria: UKANek keinuz eta eslogan laburrez baizik ez du hitz egiten. Ez du hitzaldirik egiten ez zuzenean, ez offean, ezta play-backean ere. Beste inork esanak berresten edo azpimarratzen ditu, keinuz eta esaldi laburrez.
- Gaitzeslea: ez da UKAN inoiz ikusiko bere mezuaren aurka doazen jarduerak gaitzesten. Zeregin hori emango balitzaio, gizarteari berari edota herri aginteei dagozkien zereginak hartuko litzuzke bere gain (joera okerrak gaitzestea, salatzea edota zigortzea), eta UKANen eginkizuna, berez, elkarbizitzaren mezu positiboa bideratzea baizik ez da.



3 UKANen ezaugarriak


UKAN MARKA

Elkarbizitzaren birusa irudikatzen duen marrazkiaren eta UKAN izenaren batura da. Ukan marka **bi bertsio**tan ageri daiteke,

nagusiki: A) oinarrizko bertsioa (1. bertsioa), gris-gamako aldaerarekin; eta B) kolore bakarreko bertsioa (2. bertsioa)

3.A. OINARRIZKO BERTSIOA (1. BERTSIOA) [Ukan1.tif]

Tipografia:
Comic Sans




3

UKANen ezaugarriak

OINARRIZKO BERTSIOAREN ALDAERA [Ukan1_Gris.tif]

UKAN markaren oinarrizko bertsioak gris-gamako aldaera onartzen du, soil-soilik zuri beltzeko euskarrietarako.




3

UKANen ezaugarriak

3.B. KOLORE BAKARREKO BERTSIOA (2. BERTSIOA) [Ukan2.tif]

UKAN markaren bit-mapako bertsioa da, eta ehunezko edo gisa beretsuko euskarrietan erabil daiteke, beti ere markaren inprimaketa kolore bakar batean eta kolore bakar bateko fondoaren gainean egin behar izanez gero.



3 UKANen ezaugarriak

3.C. UKANEN MUTAZIOAK


UKAN sinboloa (hau da: UKAN markaren oinarritzko bertsio koloredunean ageri den marrazkiari UKAN logotipoa kendu ondoren geratzen dena), birus bati dagokion legez, mutazioak izan ditzake. Atal honetan zehazten diren **zortzi mutazioak** dira katalogatu eta onartzen direnak. Nolanahi ere, mutazio hauek erabili ahal izateko, UKAN markaren jabe den Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzaren baimen berezia behar da, eta ezin hartuko da mutaziook erabiltzeko baimentzat UKAN markaren bi bertsiotakoren bat nahiz biak erabiltzeko baimena.

Mutaziootan, bi modutara ager daiteke UKAN: koloreko fondoaren gainean edota koloreko fondorik gabe:

- UKAN sinboloa **koloreko fondoaren gainean** agertuz gero, mutazio bakoitzean ageri den fondoa, eta mutazio bakoitzean ageri den bezala, erabili behar da.
- UKAN sinboloa **koloreko fondorik gabe** agertuz gero, UKANen oinarritzko markak daraman itzal bera, eta han ageri den bezala, jarriko zaio beti.



[Muta1.jpg]




[Muta2.jpg]




[Muta3.jpg]

3 UKANen ezaugarriak

3.C. UKANEN MUTAZIOAK



[Muta4.jpg]



[Muta7.jpg]



[Muta5.jpg]



[Muta8.jpg]





[Muta6.jpg]

4

UKAN markaren proportzioak eta neurriak

4.A. PROPORZIOAK

Ezin alda daitezke UKAN markaren proportzioak, ezein bertsiotan edota mutazio erabilita ere. Ez da, era berean, inolako distorsiorik onartuko.





4

UKAN markaren proportzioak eta neurriak



4.B. NEURRIAK

UKAN markak, ezein bertsiotan erabilia ere, euskarriaren neurrien arabera hartuko dituen **gutxieneko neurriak** zehazten dira atal honetan.

- **Din A5 edo txikiagoan:** ardatz luzeenaren herena.



- **Din A5etik gorakoetan, Din A3ra arte:** ardatz luzeenaren laurdena.




4

UKAN markaren proportzioak eta neurriak

4.B. NEURRIAK

- **Din A3tik gorakoetan:** ardatz luzeenaren bostena.



5


UKAN eta gainerako markak

5.A. JABEAREN MARKA

UKAN markaren jabea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza da, eta honek xedatuko du, UKAN marka erabiltzeko baimena ematearekin batera, UKAN markari HPSarena ere lotu behar zaion. Bi markak lotu beharko balira, atal honetan zehazten den moduan egingo da beti.


Nolanahi ere, UKAN markaren 1. eta 2. bertsioei soilik lotuko zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren marka, eta sekula ez mutazioei.

- UKAN markarekin, **Logoa-HPS-Erdia.tif** izeneko HPSren marka erabiliko da.
- **Bi marken arteko tartea**, UKAN markaren zabalerraren laurdena (X/4).
- **HPSren marka** beti UKAN markaren **eskuinera** doa.
- **HPSren marka** kokatzerakoan, ondoko irudietako ardatz gorriek zehazten dute **gehiagizko garaiera** (ardatz gorria ezpainen beheko ertzean, ikus goiko irudia) eta **gutxieneko garaiera** (ardatz gorria itzalaren zabalerran zehar, ikus beheko irudia).
- **HPSren markaren zabalera** UKAN markaren zabalerraren erdia izango da (X/2), honako mugok kontuan izanik:
 - HPSren markak ez du inoiz 5 cmko zabalera baino gutxiago izango.
 - Markaren jabeak besterik eta espreski xedatzen ez duen birtartan, HPSren markak ez du 100 cmko zabalera baino gehiago izango.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

5

UKAN eta gainerako markak


5.B. GAINERAKO ERAKUNDEEN MARKAK

UKAN markaren jabeak aldeaz aurretik onartuta, bestelako erakundearen marka, sinbolo nahiz logotipoekin batera ager daitezke UKAN eta HPSren markak loturik. Horretarako, UKAN marka erabili nahi duen erakundeak Hizkuntza Politikako Euskara

Sustatzeko Zuzendaritzarekin jarri behar du harremanetan:

Zuzendaria: Miren Dobaran Urrutia
E-posta: euskara-sustapen@ej-gv.es
Tf.: 945 01 81 11
Fax zk.: 945 01 80 82

- UKAN eta HPSren markak lotzeko, **5.A atalean zehazturikoari** jarraitu behar zaio.
- **Gainerako markak**, HPSren markaren **eskuinera joango dira**, HPSek zehazten duen hurrenkeran.
- Gainerako markek **ez dute HPSren markaren garaiera gaindituko**.
- **HPSren markarekiko tartea**, UKAN eta HPSren artekoa bera izango da (X/4).



6

UKAN biziduna


UKAN markaren aldaeratariko bat da UKAN biziduna, eta aldaera horren erabilera, gainerako aldaerena bezalaxe, guztien jabe den Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baimen eta irizpideen arabera gauzatuko da.

Oro har, agiri honek zehazten dituen estilo irizpide nagusiak beteko ditu, beti

ere, UKAN bizidunak bere agerraldi guztietan, **oso bereziki 1. eta 2. ataletan adierazitakoak**, hala nola markaren jabeak erabilera bakoitzerako berariaz adieraz ditzakeenak.

Hona hemen, laburbildurik, UKAN bizidunaren ezaugarri nagusiak:

- UKAN bizidunak jarduera zehatz baten **hizkuntza irizpideen egokitasuna onesteko** parte hartzen du ekitaldietan, baina inoiz ez jarduera edo ekitaldiaren mezu propioak aldarrikatu, bideratu, goretsi edo zabaltzeko.
- UKAN bizidunak **ez du** sekula inolako jokabide nahiz adierazpiderik **gaitzetsiko**.
- UKAN bizidunak **ez du diskurtsurik** —luze nahiz labur— egingo, **ezta ekitaldi edo jardueraren mezu edo eslogan propioak esango**. Agur eta diosala hitzak entzungo zaizkio nagusiki, eta, haiekin batera, unean uneko mezu edo lelo propioak, markaren jabeak aldiro-aldiro zehaztuko dituenak.
- UKAN bizidunak **ez du haur jolasetan parte hartuko**, markaren jabeak horretarako baimen zehatz eta berariazkorik eman ezean.



6

UKAN biziduna

6.A. UKAN BIZIDUNA ERABILTZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK

UKAN biziduna markatzat hartzen denez, ezin izango da, inolaz ere, imitatu, kopiatu edo bikoiztu, markaren jabeak bere erabilera propioetarako besterik xedatu ezean.

Beraz, UKAN biziduna ekitaldi jakin batera gonbidatzeko asmorik duenak, HPSri haren parte hartzea eskatzearekin batera, honako hauek onartzen ditu:

- **HPSek ekitaldira igortzen dituen UKANen mozorroa eta mozorrotuko den aktorea** izango dira, ezinbestez, ekitaldian parte hartuko dutenak.
- UKAN bizidunak ekitaldian egin beharrekoak, baimena eskatzearekin batera jakinaraziko zaizkio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Horretarako, **ekitaldiaren gidioa eta UKANen agerraldi(ar)en xehetasunak** igorriko dira, eta aurkezten den gidoi hori ezin izango da, UKANen agerraldiei dagokienez, funtsean aldatu.
- UKAN bizidunarekin, UKAN taldeko **ekoizpen-arduradun bat** –gutxienez– egongo da beti, eta hari jakinaraziko zaizkio UKAN bizidunaren sarrera-irteera eta eginkizunei dagozkien azken xehetasunak.
- Ekitaldiaren antolatzailearen ardurapekoa da mozorroa erabili aurretik eta ondorren –hala beharko balitz– hura gordetzeko eta aktorea mozorrotzeko **leku egokiak** prestatzea.
- UKAN bizidunak **megafoniarik erabili beharko balu**, ekitaldiaren antolatzaileak aurreikusiko ditu, UKAN taldeako ekoizleekin harremanetan jarrita, mozorroaren berezitasunak, ahotsa ozenagotzeko garaian.



6

UKAN biziduna

6.B. NON AGERI DA, BEREZIKI, UKAN BIZIDUNA?

Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak honako ekinbide eta ekitaldiok lehenetsiko ditu, UKAN bizidunaren agerraldi publikoak baimentzerakoan:

- **UKAN beraren eta bere mezu nagusiaren ezagutza zabaltzeko xedez antolaturiko ekitaldietan** eta haien propagandan. Horrelakoetan, ekitaldiaren mami eta helburuei dagozkien eslogan eta mezu zehatzak erabiliko ditu, beti laburrak eta elebidunak. Nolanahi ere, ondo mugaturiko jasotzaile-multzoak jomuga duten ekitaldi eta ekimenak lehenetsiko dira.
- **UKANen irudia gizarteratzeko baliagarri gerta daitezkeen ekintza jendetsuetan**, nahiz eta, funtsean, edukiaren aldetik UKANen mezu propioekiko lotura berezirik ez izan. Helburua, jakina, guztiz propagandistikoa da, eta Ukan bizidunaren agerraldi oso neurtuetara mugatzen da, beti ere hedabideekiko harremana bereziki zainduz.
- **Balioduntzaile moduan**, gizarte erakundeek eta instituzioek antolaturiko ekimenetan, ekimenak, helburu nagusi zein baliabide gisa, **elebitasuna** bultzatzen edo mamitzen duenean.



6

UKAN biziduna

6.C. NOLA JOKATZEN DU UKAN BIZIDUNAK AGERRALDIETAN?

Jarraian zehazten diren oinarritzko ezaugarriak, beti ere, agerraldiaren helburuen arabera egokitu eta moldatu beharko dira, kontuan izanda, bestalde, agiri honetan (bereziki 1 eta 2. ataletan eta 6. atal honen hasieran) ezarritako irizpide nagusiak.

- UKAN bizidunaren ezaugarri nagusia **moldakortasuna** da: dabilen inguruaren ezaugarrietara egokituko du beti ibilera eta jokabidea. Hala ere, beti atsegin gertatuko da, jokabide maltzur edo zalapartariegirik gabe.
- **Agur keinuak** dira bere zirkin kutunenak, eta oso gustukoa du **bostekoa** ematea.
- UKAN biziduna **ez da, inondik inora ere, berritsua** . Pozarren agurtzen ditu ingurukoak, baina ez da beraiekin solasaldian geratzen.
- **Eleanitza** da, eta eleaniztasunaren aldekoa. Nolanahi ere, inguruaren ezaugarri soziolinguistikoaren arabera neurtuko du hizkuntzen erabilera.
- Jendearekiko harremanean, **badaki distantziak gordetzen** , nahiz eta beti atsegin agertu. Hots, ez da, normalean, jendearengana gehiegi hurbilduko eta sekula **ez du clown jokabiderik hartuko** . Oso bereziki zainduko du inguruko inor ez barregarri uztea, keinuz nahiz hitzez.

